

Araugintza II. ikastaroa



2. saioa Sintaxia

Erantzun orriak



EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uhartea. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092



Aurkibidea

Sintaxi arauak. Ariketa orokorra.....	3
ARAUAK	5
bait-	5
"Ba-" eta "-(e)z gero"	7
Ezik / izan ezik / ez ezik...ere	8
–eLAKO eta –eN atzizkiak, izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan.	9
Komunztadura aposizioetan	10
Izen sintagmen arteko juntadura dela.....	10
OHIKO AKATSAK.....	12
Ezer, inor, deus... + EZ partikula	12
Zenbait erdarakada.....	13
"Hobe, hobeki (hobeto)" formen erabilera	14
ERE lokailuaren erabilera	14



Sintaxi arauak. Ariketa orokorra

1. *Zein da zuzena?*
 - a) Ez itxaron afaltzeko, berandu etorriko baitnaiz.
 - b) Atzo etxean gelditu ginen, eguraldi kaskarra egin baitzuen mendirako.
 - c) Oinez etorri behar izan dugu, dirurik gabe gelditu baigara.

2. *Zein da zuzena?*
 - a) Zu ezik, bertze guztiak inguratu ziren.
 - b) Zu izan ezik, bertze guztiak hurbildu ziren.
 - c) Zu ezezik, bertze guztiak ere inguratu ziren.

3. *Zein **EZ** da zuzena?*
 - a) Eguerdiko hamabiak ezkerre, asper-asper eginda egon gara zure zain kale kantoiko tabernan.
 - b) Eguerdiko hamabiez gero, asper-asper eginda egon gara zure zain kale kantoiko tabernan.
 - c) Zerbait egitea erabaki ezkerre, neu ere laguntzeko prest izango nauzue.
 - d) Zerbait egitea erabakiz gero, neu ere laguntzeko prest izango nauzue.

4. *Zein modutan eman dakioke hasiera hitzaldi bati?*
 - a) Jaun-andreok, ongi etorriak!
 - b) Jaun-andreok, ongi etorri!
 - c) Ongi etorriak, jaun-andreok!

5. *Hauetan, zein **EZ** da zuzena?*
 - a) Argi eta garbi hitz egiteko asmotan etorri gara.
 - b) Argi eta garbi hitz egiteko asmoz etorri gara.
 - c) Argi eta garbi hitz egin asmoz etorri gara.

6. *Euskaltzaindiak emaniko arauen arabera, zein **EZ** da zuzena euskaraz?*
 - a) Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendizabalek aurkeztu du txostena.
 - b) Unibertsitateko errektoreordea Edurne Mendizabalek aurkeztu du txostena.
 - c) Nire lagun Edurne Mendizabalek, Unibertsitateko errektoreordeak, aurkeztu du txostena.



7. Zein da zuzena?

- a) Amari, aitari eta aitonari deitu diete osasun-etxetik.
- b) Zu eta Mikelekin joango nintzateke afaltzera.
- c) Gurasoak eta lagunez mintzatu zitzaigun.

8. Zein **EZ** da zuzena?

- a) Begira iezaiozu ongi ea ezer berririk ikusten diozun.
- b) Begira iezaiozu ongi ea ezer berririk ikusten diozunetz.
- c) Begira iezaiozu ongi ea ezer berririk ikusten diozunetz.

9. Zein **EZ** da zuzena?

- a) Dagoeneko galdu dut berriro elkar ikusiko dugulako itzaropena.
- b) Dagoeneko galdu dut berriro elkar ikusiko dugularen itzaropena.
- c) Dagoeneko galdu dut berriro elkar ikusiko dugun itzaropena.



ARAUAK

bait-

A.

- 1) Mugi zaitezte! Bestela berandu iritsiko zarete eta.
Mugi zaitezte! Bestela berandu iritsiko baitzarete.
- 2) Ez aipatu horrelakorik, bestenaz negarrez hasiko naiz eta.
Ez aipatu horrelakorik, negarrez hasiko bainaiz.
- 3) Ikusi bezain laster eman zion, momentuaren zain zegoen eta.
Ikusi bezain laster eman zion, momentuaren zain baitzegoen.
- 4) Aitatxi-amatxiak ikustera joan beharko genuke, poztuko lirateke eta.
Aitatxi-amatxiak ikustera joan beharko genuke, poztuko bailirateke.
- 5) Azkenean eroriko gara, irristaka gabiltza eta.
Azkenean eroriko gara, irristaka baikabiltza.
- 6) Hartu pelikularako sarrerak, ikusteko irrikaz gaude eta.
Hartu pelikularako sarrerak, ikusteko irrikaz baikaude.
- 7) Ez negar gehiago egin, arazoa konponduko duzu eta.
Ez negar gehiago egin, arazoa konponduko baituzu.
- 8) Afari goxoa prestatu, goseak amorratzen daude eta.
Afari goxoa prestatu, goseak amorratzen baitaude.
- 9) Esnatu behingoz! Zortzi eta erdiak dira eta.
Esnatu behingoz! Zortzi eta erdiak baitira.
- 10) Gaudituko duzu, hainbesteko lana egin eta gero merezi duzu eta.
Gaudituko duzu, hainbesteko lana egin eta gero merezi baituzu.



B.

1. Ezin izanen diot erran, ez dakit **non dagoen eta**.
Ezin izanen diot erran, ez baitakit non dagoen.
2. Nik neuk ez dut ezertxo ere esan, **ez naiz hemengoa eta**.
Nik neuk ez dut ezertxo ere esan, ez bainaiz hemengoa.
3. Ez daukate deus erran beharrik, **dagoeneko ondo asko dakigu zer erranen duten eta**.
Ez daukate deus erran beharrik, dagoeneko ondo asko baitakigu zer erranen duten.
4. Ez genien dirurik eman behar izan, **bazeukaten eta**.
Ez genien dirurik eman behar izan, bai baitzeukaten.
5. Ez duzu zertan azalpenik eman, **badakite zer jazo den eta**.
Ez duzu zertan inori azalpenik eman, bai baitakite zer jazo den.
6. **Autobusa hartzeko dirurik ez neukanez**, oinez etorri behar izan dut.
Oinez etorri behar izan dut, ez baineukan autobusa hartzeko dirurik.....
7. Ezin izan diogu deus erran, **zeren gu hara heltzerako, alde egin duen**.
Ezin izan diogu deus erran, (zeren) gu hara heltzerako, alde egin baitu.
8. On Joxe Miel Barandiaran, **zeina munduko antropologorik onenatarikoa izan den**, Ataunen jaio zen.
On Joxe Miel Barandiaran, zeina munduko antropologorik onenatarikoa izan baita, Ataunen jaio zen.
9. Koldo Mitxelena, **zeinari euskarak eta euskaldunok ezin esan ahala zor diogun**, oso argi mintzatu zen gai honen gainean.
Koldo Mitxelena, zeinari euskarak eta euskaldunok ezin esan ahala zor baitiogu, oso argi mintzatu zen gai honen gainean.
10. Han goian bada herrixka bat **non geratzen diren guztiek laurogei urtetik gora daukaten**.
Han goian bada herrixka bat non geratzen diren guztiek laurogei urtetik gora baitaukate.
11. Hain nengoen urduri, **non ezin izan nuen hitzik ere esan**.
Hain nengoen urduri, non ezin izan bainuen hitzik ere esan.
12. Honen nekatuta nago, **ezen ez dudan afaldu ere eginen**.
Honen nekatuta nago, ezen ez baitut afaldu ere eginen.
13. Hain zen ederra eta dotorea, **ezen liluratuta utzi gintuen**.
Hain zen ederra, ezen liluratuta utzi baikintuen.



“Ba-” eta “-(e)z gero”

1. **Ongi lo eginez gero**, lan ere ongi egiten dut.
Ongi egiten badut lo, lan ere ongi egiten dut.
2. Nahiago nuke arazoaren mamia **zeuok azaltzea** sendi osoari.
Nahiago nuke arazoaren mamia zeuok azalduko bazeniot e sendi osoari.
3. Nahiago dut zuek etxera **joatea**.
Nahiago dut zuek etxera joaten bazarete.
4. Pozik joanen nintzateke Donibane Garazira, **jaiegunak izanen banitu**.
Pozik joanen nintzateke Donibane Garazira, jiegunak izanez gero.
5. Gustura igaroko genuke uda Zarautzen, **eguraldiak lagunduz gero**.
Gustura igaroko genuke uda Zarautzen, eguraldiak lagunduko baligu / balu.
6. **Zerbait jakinez gero**, esango liguke.
Zerbait baleki, esango liguke.
7. **Etortzen bazara**, emanen dizut; bestela, ez.
Etorriz gero, emanen dizut; bestela, ez.
8. **Nire aginduak bete ezean**, pikutara joanen zaigu egitasmo osoa.
Nire aginduak betetzen ez baditugu, pikutara joanen zaigu egitasmo osoa.
9. **Hala nahi izanez gero**, denok batera sar gintezke.
Hala nahi baduzue, denok batera sar gintezke.
10. **Nahi izan ezik**, ez da deus lortzen.
Nahi ez bada, ez da deus lortzen.
11. **Neuk ikusi ezean**, ez nukeen sinetsiko.
Neuk ikusi ez banu, ez nukeen sinetsiko.
12. Utziko dizkizut etxeko giltzak; baina, **heldu den astean bertan itzultzekotan**.
Utziko dizkizut etxeko giltzak; baina, heldu den astean itzuli behar badizkidazu.
13. **Zaratarik ez ateratzekotan**, geldi zaitezke hemen; bestela, hanka hemendik!
Zaratarik atera behar ez baduzue, geldi zaitezke hemen; bestela, hanka hemendik!
14. **Denok ez biltzekotan**, hobe dugu bilera beste baterako uztea.
Denok bildu behar ez badugu, hobe dugu bilera beste baterako uztea.
15. **Goizaldeko bostetarako etortzez gero**, trenez egin beharko dugu bidaia.
Goizaldeko bostetarako etorri behar badugu, trenez egin beharko dugu bidaia.
16. **Hainbeste ardo edanda**, mozkortu eginen ginатеke.
Hainbeste ardo edanen bagenu, mozkortu eginen ginатеke.
Hainbeste ardo edanez gero, mozkortu eginen ginатеke.



17. **Zuk erranda**, aise sinetsiko lukete.
Zuk erranez gero, aise sinetsiko lukete.
Zuk erranen bazenie, aise sinetsiko lukete.
18. **Erran dizudana egin behar duzu**, bestela alfer-alferrik zaude hemen.
Ez baduzu erran dizudana egin behar, alfer-alferrik zaude hemen.
19. **Giroa baretu ezean**, nekez lortuko dugu bat etortzea.
Giroa baretzen ez bada, nekez lortuko dugu bat etortzea.

Ezik / izan ezik / ez ezik...ere

1. No sólo necesitaremos las cosas del bolso, sino también las que hemos dejado en el coche.
Poltsako gauzak ez ezik, autoan utzi ditugunak ere beharko ditugu.
2. Excepto los domingos, venimos todos los días a trabajar.
Igandeetan izan ezik, egunero etortzen gara lanera.
3. Si no recibo ayuda, no podré terminar el trabajo para pasado mañana.
Laguntzarik jaso ezik (ezean), ezin izanen dut lana bukatu biharko.
4. No sólo comerás esto, también comerás todo lo demás.
Hau ez ezik (ez eze), gainerako guztia ere jan beharko duzu.
5. Salvo los días de lluvia, siempre vamos andando al trabajo.
Euria egiten duen egunetan izan ezik, beti joaten gara lanera oinez.
6. De no estar seguro del todo, es mejor no decir nada.
Gutziz ziur egon ezik (ezean), hobe da ezer ez esatea.
7. Tanto Irati como todos los demás, han actuado mal.
Iratik ez ezik, beste guztiek ere gaizki jokatu dute.
8. Si no estás de acuerdo con todo esto, es mejor que lo dejes cuanto antes.
Honekin guztiarekin ados ez bazaude, hobe duzu lehenbailehen utzi/uztea.
9. Menos los de Jon, asistieron todos los padres a la reunión.
Jonak izan ezik, gainerako guraso guztiak joan ziren bilerara.
10. No sólo Josu, también nos vinieron todos los demás.
Josu ez ezik, beste guztiak ere etorri zitzaizkigun.



–eLAKO eta –eN atzizkiak, izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan

A.

1. Aita gaizki zegoelaren / zegoen / zegoelako berria izan nuen ostegunean.
2. Zurekin nabilelako / nabilen susmoa hartu dute etxean.
3. Laguntzeko prest zegoen, borondate ona duen seinale.
4. Amaia etxera bueltatu zelako, zen berria zabaldu zen.
5. Etsiko duen / duenaren / dueneko ustea badu berak ere.
6. Handi-mandi horren menpe bizi naizelaren / naizelako / naizen sentimendua dut.
7. Irtengo zara sartu zinelaren / zinelako / zinen damuaz.
8. Azkarregi zihoan berantegi helduko zelaren / zelako / zen beldurrarekin.

B.

1. Tengo la sospecha de que me estás mintiendo.
Gezurretan / gezurra esaten ari zatzaizkidalako susmoa dut
2. Se ha corrido la voz de que te ha tocado la lotería.
Loteria egokitu zaizulako/zaizun zurrumurrua zabaldu da.
3. Penélope fue la primera que oyó la noticia de que había vuelto Ulises.
Penelope izan zen Ulises itzuli zen / zelako berria jaso zuen lehena.
4. No pierdo la esperanza de que algún día viva sin trabajar.
Ez dut galtzen egun batean lanik egin gabe biziko naizelako / naizen esperantza.
5. Estos últimos años ha perdido fuerza la hipótesis de que el euskara viene de África.
Azken urteotan indarra galdu euskara Afrikatik datorrelako hipotesiak.
6. ¿Quién ha difundido el rumor de que el Príncipe se ha separado de Letizia?
Nork zabaldu du Printzea eta Letizia banandu direlako zurrumurrua?
7. Empezó a tocar el tambor con la confianza de que fuera más fácil que el arpa.
Danborra jotzen ikasten hasi zen harpa jotzea baino errazagoa izango zelakoan.
8. Me vino con la excusa de que se le había muerto la abuela... y tiene 72 años.
Amona hil zitzaiolako aitzakiarekin etorri zitzaidan... eta baditu jada 72 urte.



Komunztadura aposizioetan

1. **Osasunako entrenatzaile Kuko Zigandari** emaitza ona iruditu zaio igandeko berdinketa.
 - Osasunako entrenatzaileari, Kuko Zigandari, ...
 - Kuko Zigandari, Osasunako entrenatzaileari, ...
 - Kuko Ziganda Osasunako entrenatzaileari...
 - Osasunako entrenatzaile den Kuko Zigandari...
2. **Espainiako Estatistika Institutua den INEk** eskainitako datuen arabera, joan den hiruhilekoan langabezia tasak behera egin zuen Hego Euskal Herrian.
 - INEk, Espainiako Estatistika Institutuak, eskainitako...
 - Espainiako Estatistika Institutuak, INEk, ...
 - INE Espainiako Estatistika Institutuak...
3. **Tigre ehizan liburuaren egile Aingeru Epaltza nafarrarekin** bat nator hainbat iritzitan.
 - *Tigre ehizan* liburuaren egilearekin, Aingeru Epaltza nafarrarekin, ...
 - Aingeru Epaltza nafarrarekin, *Tigre ehizan* liburuaren egilearekin, ...
 - *Tigre ehizan* liburuaren egilea den Aingeru Epaltza nafarrarekin...

Izen sintagmen arteko juntadura dela eta...

A.

1. Cenaremos con todos estos: con Mikel, contigo y con todos esos que ves ahí.
Hauekin guztiekin afalduko dugu: Mikelekin, zurekin eta hor ikusten dituzun horiekin guztiekin.
2. Lo ha pintado de rojo y de verde.
Gorritz eta berdez margotu du.
3. Invitaremos a compañeros de trabajo y a compañeros de estudio.
Lankide(ak) eta ikaskideak gonbidatuko ditugu.
4. Has hablado de nosotros y de tus amigos.
Gutaz eta zure lagunez mintzatu zara.
5. Te lo dirán este hombre y aquella mujer.
Gizon honek eta emakume hark esango dizute.



6. El corazón y la cabeza me dicen que debo hacer eso.
Bihotzak eta buruak hori egin behar dudala esaten didate.
7. Las reuniones entre las ikastolas y el gobierno han dado pocos frutos.
Ikastolen eta gobernuaren arteko bilerek fruitu gutxi eman dute.
8. Las relaciones entre el profesor y el alumno son cada vez más difíciles.
Irakasle(aren) eta ikaslearen arteko harremanak gero eta zailagoak dira.
9. ¡Nos tenía que pasar a ti y a mí!
Zuri eta niri pasatu behar!

B.

1. Denoi tokatu zaigu loteria: zuek, gu eta gure lagun guztiei.
zuei, guri eta gure lagun guztiei
2. Zuk eta nik ez dugu batere gogoko jendaurrean hitz egitea.
ONGI!!!
3. Nafarroako Unibertsitate Publikoko fakultate eta eskola teknikoetan matrikulazioak gora egin du.
ONGI!!!
4. Gizon hau eta emakume horrek ikusi zaituzte ihesi.
Gizon honek....
5. Ogi eta esnearen salneurriek gora egin dute.
Ogiaren...



OHIKO AKATSAK

Ezer, inor, deus... + EZ partikula

A.

1. Ez al du inork gaitutuko? ~~Inork~~.
Ez al du inork gaitutuko? Inork ez.
2. Horrek ez du ezertarako ere ~~ez~~-balio.
Horrek ez du ezertarako ere balio.
3. Zerbait erosi behar al duzu ? Ez, ~~ezer~~.
Zerbait erosi behar al duzu ? Ez, ezer ez.
4. Idoia bai alferra! Ez da ezertaz ere ~~ez~~-arduratzen.
Idoia bai alferra! Ez da ezertaz ere arduratzen.
5. -Zertan aritu zineten atzo? -Atzo? ~~Ezertan~~-ere.
Zertan aritu zineten atzo? Atzo? Ezertan ere ez.
6. Oihanak ez duela deus ~~ez~~-esan aitortu dit.
Oihanak ez duela deus esan aitortu dit.
7. Etsita dago. Esaten du ez duela gaitutuko inola ere ~~ez~~.
Etsita dago. Esaten du ez duela gaitutuko inola ere.

B.

1. ¿Qué has dicho? Nada.
Zer esan duzu? Ezer ez (deus ez, ezer ere ez, deus ere ez).
2. ¿Quién ha venido? Nadie.
Nor etorri da? Inor ez (inor ere ez).
3. ¿A dónde irás? A ninguna parte.
Nora joango zara? Inora ez (inora ere ez).
4. ¿Con quién ha estado? Con nadie.
Norekin egon zara? Inorekin ez (inorekin ere ez).
5. No hemos entendido nada.
Ez dugu deus (deus ere, ezer, ezer ere) ulertu.
6. No ha venido nadie.
Ez da inor (inor ere) etorri.



Zenbait erdarakada

1. El niño andará por ahí.
Hor (nonbait) ibiliko da haurra.
2. Estarán por ahí.
Hor (nonbait) egongo dira.
3. ¿Ander anda por ahí?
Hor (nonbait) dabil Ander?
4. Ha venido a través del bosque.
Basoan / basotik zehar etorri da.
5. A lo largo de esta semana algún día nos veremos.
Aste honetan (zehar) egunen batean ikusiko dugu elkar.
6. Para nosotros, tiene razón.
Gure ustez arrazoi du.
7. Para tí, ¿cuál es la mejor?
Zure ustez zein da hoberena?
8. Para mí, es muy bonito.
Nire ustez oso polita da.
9. Hemos venido en avión.
Hegazkinez etorri gara.
10. En tren se va más rápido.
Trenez azkarrago joaten da.
11. He venido en el coche de Jon.
Jonen autoan etorri naiz.
12. Se ha ido en el tren de las siete.
Zazpietako trenean joan da.
13. Voy al dentista.
Haginlariarengana / haginlariarenera noa.
14. Vengo del médico.
Medikuarenetik / medikuarengandik nator.
15. He ido al abogado.
Abokatuarengana / abokatuarenera joan naiz.



“Hobe, hobeki (hobeto)” formen erabilera

Eman itzazu euskaraz

1. Es mejor así.
Hobe da horrela.
2. Es mejor no ir.
Hobe da ez joan / joatea.
3. Esto es mejor.
Hau hobea da.
4. Tú has jugado mejor.
Zuk hobeto / hobeki jokatu duzu.
5. Trabajo mejor en casa.
Hobeki / hobeto lan egiten dut etxean.
6. Estos otros son mejores.
Beste hauek hobekak dira.

ERE lokailuaren erabilera

A.

1. Xabierrek ez dizu deitu ere iaztik.
Xabierrek ez dizu deitu ere egin iaztik / Xabierrek ere ez dizu deitu iaztik.
2. Ez al du inork gaindituko? Inork.
Ez al du inork gaindituko? Inork ez.
3. Berandu ailegatu bada ere, ez diote errietarik egin.
Ongi dago
4. Mikelek baita ere egingo ditu.
Mikelek ere egingo ditu.
5. Entzun diot ere hori gezurra dela.
Entzun ere entzun diot hori gezurra dela. / Hori gezurra dela ere entzun diot.
6. Hori esanda ere ez da konformatuko.
Hori esanda ere ez da konformatuko
7. Burlatan badira ere tipo jatorrak, ez Atarrabian bakarrik.
Burlatan ere badira tipo jatorrak ez Atarrabian bakarrik.





8. Horrek ez du ezertarako ere ez balio.
Horrek ez du ezertarako balio.
9. Aste honetan ikasiko dugu ere ikasgai berria.
Aste honetan ikasi ere ikasiko dugu ikasgai berria. / Aste honetan ere ikasiko dugu ikasgai berria / Aste honetan ikasgai berria ere ikasiko dugu.
10. Guggenheimen Aitor egon zen ere.
Guggenheimen Aitor ere egon zen. / Guggenheimen ere egon zen Aitor.
11. Zerbait erosi behar al duzu? Ez, ezer.
Zerbait erosi behar al duzu? Ez, ezer ez.
12. Kolpe ederra harturik ere, Peruk ez du atzera egingo.
Ongi dago.
13. Louvrera joanez gero, ordaindu beharko duzue ere sarrera.
Louvrera joanez gero, sarrera ere ordaindu beharko duzue.
Louvrera joanez gero, ordaindu ere ordaindu beharko duzue sarrera.
14. Dastatu nahi dugu ere Errioxako ardoa.
Errioxako ardoa ere dastatu nahi dugu.
15. Idoia bai alferra! Ez da arduratzen ezertaz ere ez.
Idoia bai alferra! Ez da arduratzen ezertaz ere.
16. Zertan aritu zineten atzo? Atzo? Ezertan ere.
Zertan aritu zineten atzo? Atzo? Ezertan ere ez.
17. Eliasek hitz egin nahi du ere Idoiarekin.
Eliasek ere hitz egin nahi du Idoiarekin.
18. Oihanak ez duela ezer ere ez esan aitortu dit.
Oihanak ez duela ezer ere esan aitortu dit.
19. Prontxio bai alferra! Ez da ezertaz arduratzen.
Ongi dago.
20. Etsita dago. Esaten du ez duela gaitutiko inola ere ez.
Etsita dago. Esaten du ez duela inola ere gaitutiko.



B.

1. Mikel también está aquí.
Mikel ere hemen dago.
2. Mañana también iremos.
Bihar ere joango gara.
3. Lo ha traído Josune. También Jon.
Josunek ekarri du, baita Jonek ere / Jonek ere bai.
4. Ana se ha ido a las tres, yo también.
Ana hiruretan joan da, ni ere bai / baita ni ere.
5. Marta ya se va, también Raúl.
Marta badoa, Raul ere bai / baita Raul ere.
6. Si tú no te vas, yo tampoco.
Zu ez bazoaz, ni ere ez / ezta ni ere.
7. Además de pensarlo, también lo he escrito.
Pentsatzeaz gain / pentsatu ez ezik, idatzi ere egin dut.
9. ¡Ni pensarlo!
Ezta pentsatu ere!